
ANBOTO

MARIREN ALTXOR ZURIA

*"Elurretan kantari dabilta marigorringo eta kilkerak.
Margotu dituzte mendietako paretak. [...]"*

(Elurretan - Lumak - HUNTZA. 2017)

Negua heldu da gure mendietara, aste osoa etenik gabe mara-mara igaro ondoren, hain maite ditugun bazterrak zurituta ikusteko irrikaz gaude. Autoa hartu eta Durangaldeako mendietara goaz. A8 autopista utzi eta Durango pasatu ondoren, Atxondo bailaran barneratu gara, bertan zuriz margotutako errepidearekin topo eginez. Hau ustekabea! Elur maila uste baino beherago dago. Gure asmoa Arrazolan aparkatzea zen, baina kotxeak aldapan txirrist egiten digu eta azkenean zubipean uztea erabaki dugu.


Egunguentia Udalatz inguruan.

TESTU ETA ARGAZKIAK



**Joseba Calzada
Mendiguren "Igeru"**
(Bilbao, 1979)

Bilbon jaio arren, gaur egun Etxebarrin bizi da. Txikitatik familiaren "Igeru" baserrian (Bermeon) garatzen joan da naturarekiko bere zaletasuna. Betidanik kirola gustatu izan zaio eta azken urteetan mendizaletasunari gogor ekin dio (izotz eskalada, ertzak, mendiko eskia ea.). Alpeak ezagutzen ditu eta ahal duenean hainbeste maite dituen Pirinioetako mendietara ihes egiten du.



Gaur, Euskal Herriko mendirik ederrenetarikoa den Anboto daukagu begiz jota. Andasto edota Udalatxetik ikusi ezkerre, bere aurpegirik ederrena erakutsiko digu, kareharritzko piramide perfektua hain zuen. Elurtuta dagoenean Pirinioetako mendi garaietan gaudela ematen du. Orain dela hiru urte Urkiolatik igo ginen eta oraingoan, berriz, ipar-isurialdeari egingo diogu aurre. Desnibel handiagoa gainditu behar dugunez igoera gogorra da, baina tarte arriskutsurik ez duenez seguruagoa ere bada.


Behe-behetik tontorra ikusi arren, Anbotoko Marik babesten duen mendi honen gailurrera heltzeko aurretik kilometro bertikal bat gainditu beharko dugu. Kondairaren arabera, Marik zazpi urte igarotzean etxez aldatzen du; Txindoki, Aizkorri, Aralar,

Murumendi... omen dira bere beste bizilekuak. Nahiz eta Bizkaian egon, eta bere 1331 metroekin ez oso mendi altua izan, neguko baldintzetan ezin da gutxietsi. Gure bizkar zorroan kranpoiak, pioleta, jaka potoloa, betaurrekoak, eskularruak... sartu ditugu.

Gure lehenengo pausuk BI4332 errepide-tik Arrazolarantz eman ditugu, laster Beitia baserri parean bide nagusia utzi eta hilerrira doan bidexka jarraitu dugu. Frailea orratza zaindari daukagu, bere pareta bertikalak beltz kolore hunkigarria mantentzen du. Anduitza baserrira heldu baino lehen, gure eskuin aldean agertzen den langa bat pasatu eta bidezidor zabal bat jarraitu dugu. Laster, Santiago auzotik datorren beste bide batekin bat egin dugu. Bidea mendebalderantz zuzentzen da eta dagoeneko elur-geruza 30zm-koa da.



Pirinioetan gaudela dirudi. Bidean ez dugu aurkitu inolako arrastorik, lehenak gara eta basoko isiltasunean gure pausuen hotsa sumatu dezakegu. Hau bai sentsazio zoragarria! Ordubete eskas daramagu elurretan eta





dagoeneko gure hankek sumatzen dute egin behar den aparteko ahalegina.

Gero eta altuago gaude. Gure eskuinaldean Atxondo bailara zuriz jantzita dotore agertzen

zaigu; zelaiak, baserrietako teilatuak, basoak, errepideak... Norvegian gaudela dirudi. In-guruan dugunarekin gozatzen dugun bitartean, bat batean egunsentia etorri zaigu zerua

gorri kolorez jantzirik. Ezker alderantz bihur-gune markatu bat pasatu ondoren, intxaurrondo batzuen artean zutoin adierazle bat aurkitu dugu. Eskuin aldetik Larrano lepora doan bide estua jaiotzen da, baina guk, ordea, ekialderantz jarraitu dugu bide nagusitik. Bertatik berrehun metro ibili ondoren, Zabaletako zelaira heldu gara, elurra gerriraino heltzen zaigu eta ez dago txabola zaharraren arrastorik. Parez pare Anboto Sakona daukagu, gure tontorraren ipar aurpegia. Hemendik 700 m geratzen zaizkigu "zerua ukitzeko". Anboto, Kurutzeta eta Elgoin tontorrek eratzen duten zirkuaren barruan gaude, hego haizetik erabat babestuta. Eskuinaldean, maldan gora goazelarik, Elgoindik behera jaisten diren orratz nabarmen batzuk ikusi ditugu. Dena elurtuta dagoenez udan marrazten den bide estutik ezin dugu jarraitu eta aldapa tenteari aurrez aurre ekin diogu.

Anboto Sakonak ez digu inolako atsedenek eskaintzen, bailarako baserriak gero eta txikiago ikusten ditugu, zerutik gero eta gertuago gauden seinale. Laster pago batzuen paretik pasa gara, zuhaitz hauek maldari trinko heltzen baitiote. Aldapa tenteak gora egiten du

Mendizaleak gora doaz





Tontorreko postontzia, atzean Gorbea eta Lekanda zaindari dituela

etenik gabe eta kontuan izanda arrastoa zabaldu gabe dagoela, nekea gero eta gehiago nozitzen dugu gure hanketan. Ipar isuria izanik gerizpean jarraitzen dugu, baina bailaran eguzkia nagusi da. Bide batez, geldialditxoak aprobetxatzen ditugu hauspoa berreskuratzen dugun bitartean inguruan dugun paisaia ikusgarriari argazkiak ateratzeko. Gutxika metroak kendu dizkiogu mendiari, eta jadanik Frailea orratzari parez pare begiratu ahal izan diogu, hau da, mila metroko altuera muga igaro berri dugu.

Mila eta berrehun metroko altueran ezkererantz egin behar izan dugu Fraileako er-

tzarekin bat egiteko eta tarte honetan Anboto Sakonaren babesa alde batera utzi dugu, ekialdeko haize fina gure azalean sumatzen dugularik. Ikuspegi aparta daukagu; Udaltax, Aizkorri, Aralar... denak zuriz dotore jantzita. Ezin dugu erlaxatu, azkeneko ehun metroak falta zaizkigu, baina oraindik elur gainean bidea zabaldu behar dugu. Une horretan urretxuar mendizale batek aurreratu gaitu, ongi eroso joan da gure arrastoen laguntzaz eta orain erraztasun handiz gainditu ditu azkeneko metroak. Guk ere berehala bat egin dugu gailurreko postontzi lanak egiten dituen aizkorarekin.

Tontorreko ikuspegi zuria ikaragarri ederra da. Alluitzerantz hedatzen den ertza ikusgarria polita ikusten da hemendik, beste aldean Gorbeia, Aramotz, Ganekogorta... eta urrutia-go Bizkaiko kostaldea. Haize bolada bortitzek elurra astindu eta gure aurpegira jaurtitzen dute. Hotz galanta dugu hemen eta berriro jaitsi behar izan dugu babes bila. Buelta bideak ez du inolako arazorik, gure aztarnak jarraitzea besterik ez dugu. Anboto Sakonaren babesean erosoago jaitsi gara berotasuna lagun dugula. Abiapuntura itzuli eta autoaren ondotik Mariri agur egin diogu irribarre batez. Hurrengo elurtean elkar ikusiko dugu!

IBILBIDEAREN DATU TEKNIKOAK

Luzera: 8,5 KILOMETRO

Desnibela: 1100 METRO POSITIBOAK

Denbora: 5 ORDU (GELDIALDIAK BARNE)

Kartografia: IGN-eko mapa MTN25 87-2 orria.
Elorrio

Materiala: NEGUKOIA (kranpoiak, pioleta, eskularruak, zira...)

Oharrak:

Neguan elur baldintzak oso aldakorrak dira, igoera hau elur egonkorrekin egitea komeni da.

Tracka:

<https://es.wikiloc.com/rutas-alpinismo/20100110-anboto-arrazolatik-22604153>

Web orrialde interesgarriak:

<http://igertu.blogspot.com.es/2010/01/20100110-anboto-1331m.html>

<http://igertu.blogspot.com.es/2012/03/20120211-anboto-1331m.html>

<http://igertu.blogspot.com.es/2007/04/20070127-anboto-1331m-invernal.html>